

2015EKO APIRILAREN 21EAN, UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Esteban García Campijo jn.

ZINEGOTZIAK:

Santos Gómez de Segura Quintana jn.

Aitor Aguirre Galdós jn.

Jon Arenaza Sáenz del Burgo jn.

IDAZKARIA: Miguel A. Olveira Barral, ekitaldiaren fede ematen du.

ETORRI EZINA ADIERAZI DUTE:

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

Mariví Martínez de Antoñana Chasco and.

Juana María Arroniz Arroniz and.

Esteban Elorza Echazarra jn.

Juan José Berrueta Chasco jn.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamabosteko apirilaren hogeita batean, hamabiak eta bost zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Esteban Garcia Campijo Alkate-Lehendakari jaunaren lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzailea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- AKTEN ONESPENA

Lehendakari jaunak galdetu du Udalbatzaren kideren batek esatekorik duen 2015eko otsailaren 5eko ohiko bilkuraren eta 2015eko martxoaren 25eko aparteko eta premiazko bilkuraren aktei buruz. Horren kopia helarazi zitzaien Zinegotzi jaun guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Aurkeztutako aktak aho batez onartu egiten dira. Lehendakari jaunak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, R.O.F 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera

2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

Zkia.	Data	Edukia
10	2015/02/10	GAINBALIOEN KITAPENAREN ONESPENA
11	2015/02/12	OBREN LIZENTZIA EMATEA- BUJANDAKO AABB KONTZEJU-ETXEAREN KONPONKETA
12	2015/02/13	JARDUERA LIZENTZIA EMATEA ANTOÑANAKO ZENTRAL HIDROELEKTRIKOARI
13	2015/02/16	BANAKETA HORIZONTALERAKO LIZENTZIA EMATEA – SOL DE ABAJO 5 KALEKO ERAIKINA ANTOÑANA

14	2015/02/17	484/2014 ZKIA. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAN PERTSONATU
15	2014/08/20	BETEARAZTEKO AGINDUA – ANTOÑANAKO ERAS DE ARRIBA 43 ERAIKINEAN
16	2015/02/26	BANKU-TRANSFERENTZIA
17	2015/02/26	BEHIN-BEHINEKO ONARTUEN ZERRENDAREN ONESPENA BERDINTASUNEN TEKNIKARIA
18	2015/03/02	OBREN LIZENTZIA HERRERIA ETA CENTRO KALEETAKO ETA 628 LUR-ZATIAREN ERAIKINEN BERRITZEA
19	2015/03/02	BETEARAZTEKO AGINDUA 1 POLIGONOKO 873 LUR-ZATIA
20	2015/03/03	JENDAURREAN AGERTZEA BERDINTASUNEN TEKNIKARIA DEIALDIAREN EMAITZAK
21	2015/03/06	EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
22	2015/03/09	ZERGA-HOBARIA IBILGAILU HISTORIKOA: VI-1068-L
23	2015/03/09	APROBETXAMENDUAREN TASA CEPSA-2014KO LIKIDAZIOA
24	2015/03/11	DIRU-LAGUNTZA KULTURARTEKOTASUNA AFA-2015
25	2015/03/18	OBREN LIZENTZIA BARRUALDEA BERRITZEA
26	2015/03/18	DIRU-LAGUNTZA BERDINTASUNA AFA-2015
27	2015/03/24	ALKATEAREN ZEREGINAK ESKUORDETZEA
28	2015/03/25	PUY IZENDATZEA
29	2015/03/26	PLEGUEN ONESPENA IGERILEKUAK 2015
30	2015/03/26	URBANIZAZIO-PROIEKTUAREN BEHIN-BEHINEKO ONESPENA UER-6 ORBISO
31	2015/03/27	GAINBALIOA
32	2015/03/27	2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONESPENA
33	2015/03/27	LURSAILAREN EROSTEA ARABA CAMPER
34	2015/03/30	PROIEKTUAREN ESLEIPENA ARABA CAMPER
35	2015/04/07	BANKU-TRANSFERENTZIA
36	2015/04/13	ETXEBIZITZA OKUPATZEKO LIZENTZIA EMATEA – SANTA ELENA KALEA 14
37	2015/04/13	OKUPATZEKO LIZENTZIA EMATEA FASE I CASTILLO KALEA 9
38	2015/04/13	OKUPATZEKO LIZENTZIA EMATEA FASE II CASTILLO KALEA 9
39	2015/04/14	ETXEBIZITZA OKUPATZEKO LIZENTZIA EMATEA MONTIJO KALEA 10
40	2015/04/14	LIZENTZIA EMATEA ESTAZIO METEOROLOGIKA EZARTZEKO
41	2015/04/15	KREDITUA ERANSTEKO ESPEDIENTEA
42	2015/04/16	BETEARAZTEKO AGINDUA 1 POLIGONOKO 765 LUR-ZATIA – SANTIKURUTZE KANPEZU
43	2015/04/17	LIZENTZIA EMATEA 1354 ETA 1355 LUR-ZATIEN BEREIZKETA ETA ERANSKETA
44	2015/04/17	LIZENTZIA EMATEA DESPEÑADERO KALEA 18 ETXEBIZITZAKO FATXADA KONPONKETA
45	2015/05/17	OBREN LIZENTZIA EMATEA TEILATUAREN KONPONKETA HERRERIA KALEA 23
46	2015/05/18	2015EKO APIRILAREN 21EKO OSOKO BILKURA-DEIALDIA

Aguirre jaunak galdetu du Araba Camper eta estazio meteorologiko baten ezartzeari buruzko Dekretuengatik.

Alkate jaunak adierazi du: lehenari buruz, obren proiektua agindu dela; eta, bigarrenaren inguruan, jabetza publikoko lurzoruetan Eusko Jaurlaritzak egindako instalazio bat dela.

3.- HAUTESKUNDE MAHAIKIDEAK AUKERATZEKO ZOZKETA

Maiatzaren 24an izango diren Toki Hauteskundeetarako hauteskunde-mahaidideak aukeratzeko zozketa egin da.

4.- LEHENDAKARITZAREN TXOSTENAK

Alkate jaunak aurreko batzarretik landu dituen bestelako gaiak azaltzen ditu:

- Zenbait bilera izan ditu:

1.- Eusko Jaurlaritza:

- *HAURRESKOLAK (Proiektua)
- *SOS-DEIAK (Jardunaldiak)
- *EUDEL (Jardunaldiak)
- *UDALSAREA 21 (Jardunaldiak)
- *HAZI-IZKI (PDRs)
- *URA (Euriteen kalteak)
- *LANBIDE (emlegua)
- *EUDEL (Asamblada)
- *EUSKALMET (Zerbitzuak)
- *EMAKUNDE (Lankidetzak)
- *SPRILUR (Poligonoa)

2.-Arabako Foru Aldundia:

- *INGURUMEN SAILA (Ur zikinen araztegi lotura proiektua/Bide Berdea/Mendiak...)
- *BIODIBERTSITATEA+ABELTZAINZA (Hegazti harrapakarien haztegiaren Proiektua)
- *EKONOMIA SUSTAPENERAKO (Araba Camper Proiektua+Hegaztien haztegia)
- *NEKAZARITZA (Ureztatzea)
- *ARABAKO (Etxebizitza tasatuak)

3.-BESTELAKOAK:

- *IBERDROLA (Eraikinaren lagapena)

5.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Alkate jaunak adierazten du mozio bat auzeratu dela zeina une horretan tramitatzeari ekiten zaion.

5.1. SUTEAK ITZALTZEKO ETA SALBAMENDURAKO ESKUALDE UNITATEAK (SISEU)

ZIOEN AZALPENA

2005eko martxoaren 11n, arratsaldeko 19:00etan, sutea gertatu zen Dulantzi kalean, Agurainen. Hiru lagun hil ziren, horien artean haur bat. Gertakariak, lanegun baten eta egun argiz jazoak, herritarrak hunkitu eta alarma sozial handia eragin zuen. Zoritxarreko gertaera hura Suteak Itzaltzeko eta Salbamendurako Eskualde Unitateen (aurrerantzean SISEUak) abiapuntua izan zen, izan ere, 2007an aurreneko parkea ireki zen Guardian.

SISEUak Aldundiak Gasteizko Udalari eginiko kudeaketa-agindu bidez kudeatzen dira, eta zerbitzuko langileak udal horren mende daude. Aldi berean bi administrazioren mende egonik, buru-bikoiztasuna sortzen da zerbitzuaren eguneroko funtzionamenduan, arazo ugari eragiten dituen, bikain jasoak eta egiaztatuak, esaterako, inkongruentziak, botere-hutsuneak, kontrako aginduak eta bikoiztasuna izapide oinarrizkoenetan.

SISEUak egunez baino ez dira egoten operatibo, eta 12 orduetik beherako epean, zeren langileek, Gasteizko Udalaren mende daudenez, hiriburuko parkean fitxatzen dute; hortaz, taldea SISEUetara iritsi

arte, horiek ez dira operatibo egoten. Gauza bera gertatzen da irteera-orduarekin, langileek, era berean, Gasteizen fitxatzen dutelako. Ondorioz, egunean 12 orduz baino gehiagoz zerbitzu hori egongo ez balitz bezala egoten da, 2007. urtearen aurretik gertatzen zen moduan.

Suteak itzaltzeko eta salbamendurako zerbitzu honek, egun, 48 bitarteko suhiltzaile profesional ditu, programa-kontratu batekin, eta beraien lana Guardia, Espejo, Kanpezu eta Aguraingo parkeetan garatzen dute. Suhiltzaileak aldizkakotasunez txandakatzen dira parke batetik bestera 3 profesionaleko lantaldeetan, ez dute inolako aginte operatiborik, ezinbesteko irudia dena larrialdi-egoeretan egoki esku hartzeko, eta 9 urtean jardunean dauden profesionalek ez dute jaso larrialdi-egoeretarako aginte- eta kontrol-ikastarorik.

Suhiltzaile profesionalen taldea, haien kopuruari dagokionez, justuegia izateaz gain, zerbitzuak langileak falta ditu esparru gehienetan: administrariak (baimenen, bajen, errefortzuen... kudeaketa), mantentze-lanetarako (gertakarien eta material sentikorrari begirako ikuskapenen jarraipen eguneratua egiteko, alegia, esposimetroena, arnasketa-ekipoena...), erosketak kudeatzeko (egun, langile berriek ez dituzte oinarriko Norberaren Babeserako Ekipoak (NBE)), ez baitago erosketa-kudeaketarik berrezartze automatikoekin eta aginteenekin.

Behin-behinekotasun egoera honetan, duela 9 urtetik, egungo Euskadiko Larrialdien Kudeaketarako Legearen (apirilaren 3ko 1/1996 Legea) funtsa urratzen ari da, egoera-mota honetan (ez dago lekurik inprobisaziorako edo harridurarako, lege horren arabera) talde hierarkizatuak, ondo antolatutako eta berariazko protokolo operatibodunak eskatzen dituen, erabaki azkarra eta egokia hartzea hil ala bizikoa den egoeretan ez dadin egon inolako inprobisaziorik.

Horregatik guztiagatik eta egoeraren larritasuna kontuan hartuta, ondoko mozioa aurkezten dugu Udalbatzan eztabaida eta onar dadin:

MOZIOA

Kanpezuko Udalak bere kezka eta ezinegona adierazten ditu SISEUetako suhiltzaile profesionalek egunero pairatzen dituzten lan-baldintza prekariorik, bitarteko eza eta ekidin daitekeen arrisku-egoera direla-eta.

Kanpezuko Udalak eskaera egiten dio Gasteizko Udalarari aurreko puntuan jasotakoari irtenbidea emateko beharrezko neurriak har ditzan.

Kanpezuko Udalak adierazten du SISEUen zerbitzuak publikoa izan behar duela, kalitatezkoa, profesionala denbora osoz, iraunkorra eta aurrez aurrekoa suhiltzaileen parkeetan (egunean 24 orduz, astean 7 egunez).

Kanpezuko Udalak eskaera egiten dio Arabako Foru Aldundiari zerbitzuaren behin-behinekotasun egoerari irtenbidea emateko beharrezko neurriak har ditzan, langileekin eta aurreko puntuan planteaturiko baldintzen arabera adostuta.

Kanpezuko Udalak Arabako Foru Aldundiko Tokiko Administrazio Sailari, Gasteizko Udalarari eta langileen ordezkariari igorriko die mozio hau.

Mozioa bozkatu ondoren bertaratutakoek aho batez onartu dute.

Alkate jaunak galdetu du bertaratuek galderarik egin nahi dituzten.

Aguirre jaunak igerilekuei buruz galdetu du, eta jaiak arte zabalik izatearen aukera sartzea eskatu du.

Alkate jaunak adierazi du lizitatzen ari direla, eta aurkeztutako proposamena sartzeko aukera dagoela.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate-Presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko ordu batean. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.